

OROITZAPEN BAT

Kontuz ibiltzeko esaten ziguten, pittin bat deskuidatu orduko gizonek gauza txarrak egingo zizkigutela. Esakune horrek estoldetako ura zekarren bere hotsetan, zikina zen zer-bait, eta iluna, basoko bidezidorrak bezalakoa. Hala ere, gure ahoetan pausatzen uzten genion, arrotasunaren likistasuna sentitzeko.

Atarietan, bonbilla mengelen azpian etzanda, ipurmamiak zeharkatzen zizkigun harlauzen gogortasun hotzak, eta hankak estutzen genituen bata bestearen kontra, perla arrosaren distira aurkitzeko. Paparreko lapak aztertzen genituen. Koilaratxoak miatzatzen.

Jarraian, galtzerdi zuriak altxatu eta arineketan abiatzen ginen kalez kale, eskolako liburu-zorroa airean. Gure belaunak uso fidaberak ziren; ileko txoriak, amu desiraz beteak.

Eta ez genuen txintik esaten. Egunei joaten uzten genien, besterik ez, etor zekigun adina inori gu ukitzen uztekoa.

Agerkari bat

Katu bat topatu dut hilda sotoan. Haren larruak tertziopelo zimur txatala ematen zuen. Husturik zegoen jada barrutik, baina bereizten zen burua hanken artean kuzkurtuta.

Hilotz hori oin-puntarekin ukitzeak ezagutarazi dit nola hil nahi nukeen nik.

Heriotza tristea izan du piztiak, tristea baina garbia: bere bildukian desegin da diskrezio osoz.

Teilatuan habia egin, eta lumaz nahiz gorozkiz hoditeria butxatu zigun kalatxoritik ere ez zen deus geratu lumaje hutsa baizik.

Ez dut nahi aulkirik inguruan nire hiltamuan, ez atzamarririk pultsua hartzen, zalantzen hatsik ihes egitear den izena ainguraz lotzen: lixto? c'est fini? eta begi-ñika hori?

Hil nadin animalia apal bat legez bakardadearen muinean.

Ondoren lehortu, gogortu eta husteko, nire irudiarekin lohitu gabe maite ditudanen begi-niniak.

Amaiera bat

Gaixorik zegoela uste zuen berak.

Eta uste izateak bestelakoa sentitzea dakar, edota baita izatea ere.

Horregatik besarkatzen zuen Karraspioko arbola, errepedemuturrean, kordeldegi zaharraren ondoan.

Eskuak pasatzen zizkion ehunka urteko azaletik moja bategen Kristoren soinean egingo lukeen legez.

Arbolatzarrak geriza ederra ematen zuen eta, enborrean sarturiko hiru iltzeetatik, udan lorontziak ageri ziren dindilikak, geranioak edo surfiniak.

Berak, inoiz xuxurlaka mintzatzen ez zenak ahotsa apaltzea inoren errukiari armak makurtzea delako, berba batzuk ahoskatzen zituen hortz artean: zaindu osatu barkatu bihar arte.

Ia egunero, haren pausoek bostehun bat urte hosto eta adabegi inguratzen zituzten, zerumuga erakusten duen tenplu bat zapalduz bezala.

Asma engainarrera da landareen izerdiaz fio bazara, lotsatzen ez bazara begiradekin.

Bat-batean hil zen, etxean, arrats batean, zuhaitza bota eta bi egunera.

Bat-batean bota zuten.

Gaixorik omen zegoen.

Zerbitzu berriez arduratu behar zuen kontzesiodun enpresaren agindua izan omen.

Baina guk ikusi genuen ebakia, eta zurezko haragia osasunez distiratzten zen xerra trinkotan.

Kasualitateak:

heriotza eta krimen ia aldiberekoak, geobiografiak sunsituduz ordu pare eskas batean.

Laburpen bat

Gure seme-alabak bizkor hazi ziren, udan hirusta bezain.

Pentsatu genuen, jaio zirenean, ehun eta hezurren egiturak, ohi hutsek eta izerdi amniotikoak garezur oraindik garbitu gabean izar berri bihurtzen gintuztela galaxian.

“Zugatik, ikara barik zeharkatuko ditut basamortuak”. Halakoa zen kemenaren definizioa.

Haien txortxorrek gainezka egiten zioten, berkalifikatuz, arrunta zenari, azalekoari, ilunari.

Jaiotza horiekiko maitasunez barregarri bilakatu ziren gure iruzkinak.

Eta horrela, etorkizunak ipuin eder bat zirudien, etxean eginiko marrazkiz hornitua, amaierarik eta balizko salmentaneurririk bakoa.

Orain, kumeek beren erara taxutzen gaituzte, aknearen eta marihuanari buruzko zalantzaren adina pasatu ta gero.

Eta zubi erdi hutsak hortxe dirau, geuk altxatu eta geure gurasoek gugatik altxatu zuten tokian.

Eta zera dagokigu, garondoan hotz bera sentitzea, eta urrun egon daitezela itxarotea denboraren zama bat-batean abail dakigunean bizkar gainera.

Espero dut nik behintzat ezein tankera ez hartzerik itzalen artean.

Miren Agur Meabe